



[Hernialde](#)

- [Irratia](#)
- [Argazkiak](#)
- [Bideoak](#)
- [Zerbitzu gida](#)

Herritarrentzat sagardoa eta Petritegirentzat txapela

Tolosaldeko Ataria 2017-08-13 18:08 [Festak](#) [Hernialde](#)

Gaur goizean hasi dira Hernialdeko Andra Mari festak, eta eguerdian, XXVI. sagardo lehiaketa ospatu da. Astigarragako sagardogileak izan dira onenak, eta 79'5 puntu eskuratu ondoren, txapela jantzita eta xanpain botila eskuan itzuli dira etxera.

Astoa jaistearekin batera sartu dira jai giroan, Hernialden. Bertan, gainera, jarduera mordoa antolatu dituzte andramarietako lehen egunerako. Goizeko 12:00etan txupina bota eta ondorengo meza nagusia amaitzerako hasi dira sagardoa zerbitzatzen, plazan. Sagardoaz gain, txorizo pintxoak ere hartzeko aukera izan da, sabela betetzeko asmoz. Epaimahaian, berriz, Kizkila elkarteko kideak aritu dira lanean, tradizioari eutsiz, eta sagardo bakoitzaren usaina nahiz zaporea zorrotz puntuatuz.

Bertaratu diren sagardozaleek, 9 sagardotegi ezberdinetatik ekarritako zukuak dastatzeko aukera izan dute, tartean, 77'5 punturekin hirugarren geratu den Sarasola, eta puntu bat gehiago lortuta, amaierako sailkapenean bigarren izan den Barkaiztegi. Gainerakoan, Gaztañaga, Izeta, Rezola, Lizeaga, Urruzola eta Otsua-enea etxeetatik ekarritako sagardoak dastatzeko aukera ere izan da. Arratsaldean, herri kirolak ospatuko dira, eta zahagi ardoaren segidan, Ezten giro erromeri taldeak alaituko du hernialdetarren gaua. Ikusi [hemen](#) gaurko egitaraua.


[Ikusi argazki guztiak handiago](#)















Tolosaldeko Ataria-ko hiru langile
abuztuan ere lanean.
Zuri esker Atarikide!


#zuekjaietaguklan

#Atariafestetan











Lan hau egiteak kostu bat du, eta
guztion artean errazago
ordainduko dugu. Egin Atarikide!

#zuekjaietaguklan

#Atariafestetan













Zu ere egin Atarikide!


#zuekjaietaguklan

#Atariafestetan













Lan hau egiteak kostu bat du.
Egin Harpidedun!

#zuekjaietaguklan

#Atariafestetan











- [Traka lehertu arte, ospatzen](#)
- [Hernaldeko Andra Mari jaietako egitaraua](#)
- **BEREZIA:** [Hernaldeko Andramariak 2017](#)



Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.
San Esteban, 20 Tolosa 20400
Telefona: 943 65 56 95
ataria@ataria.eus